

CDNko Zuzendaritza Batzordeko jaun/andreak,

Gutun honen bitartez, helduen euskalduntzeari buruz hartu dituzuen erabakiez eta izan duzuen jokabideaz dugun kezka azaldu nahi dizuegu.

Izan ere, 1998ko abenduaren 21ean Euskararen Normalizaziorako Konpromiso Politikoa sinatu zuen CDNk Euskararen Gizarte Eragileen Kontseiluak proposaturik. Sinatutako testuan euskararen aldeko lanean ari garenoi ematen dizkiguten diru laguntzak nabarmen handitzeko konpromisoa hartu zuen CDNk, beste hainbat alderdirekin batean.

Aipatu akordio horren sinatzaileen 4. konpromisoak honela dio: ***Behar diren bitarteko administratibo, juridiko eta, bereziki, ekonomikoak ezarriko ditugu. Era berean, gaur eguneko subentzio-politikaren kopuruak era funtsezkoan aldatu eta laguntza-lerro berriak sortuko ditugu.***

Hala ere, CDNren jokabidea honako hau izan da:

1. Nafarroako Gobernuaren 2005eko aurrekontuetan guri dagokigun kontusailean egin zuten murrizketa %65,98koa izan zen, 348.957 eurokoa, 56,474.688 pezetakoa, alegia. Erabaki hori babestu egin zuen CDNk, ez baitzuen gainerako alderdiek, UPNk izan ezik, aurkeztutako proposamen bakar baten alde egin. Eta gainera, CDNk ez dio bere jokabidearen gaineko inolako azalpenik eman Nafarroako IKArri.

2004 abenduan erabaki zuten diru murrizketak gure euskalduntze lanean eragin izugarria izan du. Batetik, Nafarroako herritarren babes ekonomikoa lortzeko egin behar izan dugun ahalegina geure lanean egiterik ez dugu izan. Bestetik, ikasleek ordaindu beharreko matrikula garestitu behar izan dugu. Azkenik, gure lanaren errekonozimenduan ere atzera egin dugu. Horrek guztiak euskalduntze lana oztopatu egin du, eta

Nafarroan lan hori egiten duten bi euskaltegi sareetako baten etorkizuna kolokan jarri, euskararen prestigio galera areagotzeaz gain.

2. 2006ko aurrekontu proposamenean, berriz, 50.000 euroko igoera lortu omen du CDNk, 8.319.300 ptakoa, alegia. Hori horrela geratuko balitz, 2006an izanen genukeen diru murrizketa 49.742.259,40 ptakoa, 298.957 eurokoa litzateke, 2004ko diru kopuruaren %56,52koa.

Honen aurrean, hauxe galdetzen diogu geure buruari ez ezik, CDNko Zuzendaritzari:

1. Nola uztar daitezke CDNk 1998an hartu zuen konpromisoa eta 2005eko aurrekontuetan Gobernuak egindako diru murrizketa izugarria CDNk babestu izana?
2. Zer dela eta babestu zuen erabaki hori CDNk? Zer dela eta ezarri zeniguten zigor ekonomiko hori guri eta gure euskaltegietan ikasi nahi duten nafarrei? CDNren hizkuntza politika 1998tik hona aldatu egin al da? Hala bada, zertan aldatu da? Noiz eta non eman duzue aldaketa horren berri? Ez al zaizue iruditzen CDNk azalpenen bat zor diola Nafarroako IKari eta Nafarroako euskaltzale guztiei?

Eta bukatzeko, hemen duzue gure eskaera:

2006ko aurrekontuetan 50.000 euroko igoera proposatu omen du zuen alderdiak. Parlamentuan Gobernuaren aurrekontuez izanen den eztabaidan, 1998an erakutsitako jarrerarekin bat eginez, Nafarroako euskaltegiendako laguntza duinak proposatzea eta hori horrela izan dadin zuen esku dagoen guztia egitea espero dugu.

Aurretik eskerrak emanez, eta aurki berri onak izanen ditugulakoan, Nafarroako IKaren izenean, agur.

Iruñean, 2005eko azaroaren 21ean.

Sagrario Aleman Astiz
Olano Etxabe

Joxerra